

EGITARUA

MIRAMAN JAUREGIAN

9:00-9:30 Jardunaldiaren irekiera Agurtzane Elordui & Jokin Aiestaran (EHU)

9:30-10:30 *Turistifikazioa eta bere ondorio soziolinguistikoak: gizarte sareak eta hizkuntzen balioa.*
Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)

10:30-11:30 *Añorgako dibertimendua: komunitatearen ahotsa Donostiako gentrifikazio-prozesuaren aurrean.*
Jokin Aiestaran eta Lamia Filali-Mouncef: (EHU)

11:30-12:00 *Atsedena*

12:00-13:00 *Zentralitateak eta periferiak Nafarroan: euskalduntasunaren birdefinizioak Iruinkoan.* Samara Velte eta Iñaki Saquardoi (EHU eta NUP)

13:00-14:00 *Hizkuntza, umorea eta kultur gentrifikazioa: estilo-hautuen esanahi sozialak Hazparneko libertimenduan.* Agurtzane Elordui eta Oroitx Jauregi (EHU):

AÑORGAN

14:30-16:30 *Bazkaria*

Añorgako Zineman,

16:30-18:00 Beñat Gaztelumendi eta Gari Otamendi:
Añorgako Dibertimenduz

18:00-19:30 Mahai-ingurua: Añorgako Dibertimenduaren, Hazparneko Libertimenduaren eta Iruñeko Iruinkoaren parte-hartzaileak solasaldian

19:30-20:00

Jardunaldiaren itxiera



Gentrifikazio turistikoa eta kultur minorizazioa

LIBERTIMENDUAK ETA EUSKARAREN
AKTIBISMO BERRIAK
PERFORMANTZIAREN AROAN



ASIER BASURTO (Soziolinguistika klusterra)

Turistifikazioa eta bere ondorio soziolinguistikoak: gizarte sareak eta hizkuntzen balioa

Hitzaldiak turistifikazioa aztertuko du hiri- eta lurralde-eraldaketa prozesu estruktural gisa. Lehenik, gainturismoaren inguruko gizarte gatazka deskribatuko da, nazioarteko eztabaidak eta erresistentzia sozialak kokatuz. Ondoren, azken hamarkadako Donostiaren turistifikazioaren azelerazioa azalduko da, etxebizitzan, hiri espazioan, lan-munduan, ingurumenean eta kulturen dituen ondorio nagusiak laburtuta. Azkenik, turistifikazioak hizkuntza gutxituen erabilera-baldintzetan duen eragina aztertzeke marko soziolinguistiko bat proposatuko da, euskararen balio sinbolikoaren eta instrumentalaren arteko tentsioak ardatz hartuta.

JOKIN AIESTARAN & LAMIA FILALI- MOUNCEF (EHU)

Añorgako dibertimendua: komunitatearen ahotsa Donostiako gentrifikazio-prozesuaren aurrean

Aurkezpen honetan Añorgako dibertimenduan jarriko dugu arreta. Gainerako libertimenduetan bezala, performancean euskararen eta euskal kulturaren aldeko aldarrikapenak jartzen dira erdigunean, eta, aldi berean, bertako komunitateari zuzenean eragiten dioten zenbait auzi plazaratzen dira. Añorgaren kasuan, dibertimendua antolatzen hasi zenetik bereziki nabarmendu den gai bat izan da hiriaren turistifikazio- eta gentrifikazio-prozesuaren eragina komunitatearen identitate linguistiko eta soziokulturalean. Parte-hartzaileek inauteriaren markoa baliatzen dute gizartearen errotutako ideologiak kritikatu edo zalantzan jartzeko, jarrera erreflexibo eta autokritiko batetik. Aurkezpenaren xedea da aztertzea, inauteriaren multimodalitate osoa kontuan hartuta, performancean nola baliatzen den komunitatearen kapital soziokulturala haren kezka-iturri nagusiak plazara ekartzeko.



SAMARA VELTE & IÑAKI SAGARDOI (EHU; NUP)

Zentralitateak eta periferiak Nafarroan: euskalduntasunaren birdefinizioak Iruinkokoan

2019tik, Iruñerriko euskalgintzaren barruko ahots kritiko eta, aldi berean, maitatuenetako bat bihurtu da Iruinkoako herri inauteria. "Neguko sanferminek" tokiko euskal komunitatearen aurpegi zantza, apurtzaile eta konplexugabea aldarrikatzen dute. Euskararen posizio anibalanteaz hausnartzen du, hartara, Iruinkoako hiriko bizitza sozial, ekonomiko eta politikoaren ertzetik, eta, aldi berean, hiriaren zentrotik mintzo da. Nafarroako errealitateari buruzko bere bertsioa ematen du urtez urte, eta, bide horretan, errealitate hori bera birdefinitzen du, tokiko jauntxokeriei eta euskararen fetitxazio eta utilitarismo berriei irri eginez. Besteak beste, pertsonalismo eta metatze ekonomiko handietan oinarritutako kultur ekitaldi erraldoien ereduari kritika zorrotza egiten dio, eta kontrara, komunitatea oinarri duen herri-kultura bat aldarrikatzen du.

AGURTZANE ELORDUI & OROITZ JAUREGI (EHU)

Hizkuntza, umorea eta kultur gentrifikazioa: estilo-hautuen esanahi sozialak Hazparneko libertimenduan

Hitzaldi honetan kultur gentrifikazioaz eta hizkuntza-baliabideen balio sozialaren berrantolaketa gogoeta egin nahi dugu, eta prozesu biak estuki loturik daudela agerian jarri ere. Hazparneko libertimenduan jarriko dugu arreta eta, zehazkiago, libertimenduen umorezko parodietan. Umorea eta parodia baliabide metapragmatiko gisa ulertzen ditugu, hizkuntza-ideologiak eta hizkuntza-aldaeren legitimazioa agerian uzten dituzten praktika diskurtsibo eta estilistiko gisa. Zenbait hizkuntza-hautu aztertuko ditugu parodia horietan, eta Ipar Euskal Herriak egun bizi duen urbanizazioaren eta turistifikazioaren eraldaketaren markoan eztabaidatuko ditugu. Hizkuntza-hautuek egun indarrean dauden gizarte-hierarkiak eta botere-harremanak azaleratzen dituzte. Hitzaldian, saiatuko gara erakusten hizkuntza-hautu txikiak ere hitz egiten dituzten globalak diren aldaketa sozial, ekonomiko eta kulturetz eta Iparraldean quetz errotzen ari diren balio sozialaren aldaketaz ere.



Agurtzane Elordui Urkiza ikerlari eta irakasleak Soziolinguistikaren alorrean lan egiten du. EHUko Gizarte Zientzien eta Komunikazio Zientzien Fakultateko gradu eta masterretan irakasten du soziolinguistikaz eta komunikabideetako hizkeraz. NOR Ikerketa Taldeko (IT81-16) kidea da. Gaur egun hurrengo alor hauetan ikertzen du: hizkuntza ideologiak, hizkuntza gutxituak, sare sozialetako praktika eleaniztunak, performantzia, ikus-entzunezko diskurtsoaren estilizazioa eta euskal gazteriaren aldaketa soziolinguistiko eta ideologikoak. 2022tik *Gazte ahotsak: gazte kultura, euskara eta ideologia linguistikoak* egitasmoa zuzentzen du.



Jokin Aiestaran Etxabe Euskal Hizkuntza eta Komunikazio Saileko irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, eta NOR ikerketa taldeko kidea. Eleaniztasunaren eta hezkuntzaren, hizkuntza-jarreraren eta hizkuntza-paisaiaren arloetan egin du lan. Gaztesare proiektuaren barruan, gazte euskaldunen sare sozialetako hizkuntza-praktika eleaniztunak aztertu ditu, hizkuntza-ideologiak eta identitateak ardatz hartuta. Gazte-ahotsak proiektuan, “Iruinkokoa’ and the Basque semiotic landscape” argitaratu du (C Amorós Negre; G. Prego Vázquez (arg.), *Ethnographic Landscapes and Language Ideologies in the Spanish State*. Routledge (Agurtzane Elordui eta Samara Velterekin batera, 2025).. Ikertzailea da *Gazte-ahotsak: gazte-kultura, euskara eta hizkuntza-ideologiak* egitasmoan..




Asier Basurto Arruti (Donostia, 1985) soziologoa da, eta euskararen soziolinguistikaren arloko ikerketan dihardu Soziolinguistika Klusterrean. Bere lan-ildo nagusien artean daude kaleko hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologiak, gazteen hizkuntza-praktikak, hizkuntza-teknologien eragina eta erakundeen komunikazio publikoa. Ikerketa aplikatuaren ikuspegitik, Euskal Herriko hizkuntza-errealitatea aztertzeko hainbat proiektutan parte hartu du, bereziki datu enpirikoen bilketari, interpretazioari eta gizarteratzeari lotutakoetan. Horrez gain, Bizilagunekin desazkunde turistikoaren aldeko donostiarren plataformako kide da sorreratik. Eremu horretan, Donostian bestelako hiri-eredu baten aldeko dinamiketan parte hartzen du, azterketa, eztabaida publikoa, salaketa, mobilizazioa eta proposamen alternatiboen eraikuntza uztartuz. Hiri mailako, Euskal Herriko eta nazioarte mailako sarete dinamiken bidez desazkunde turistikoaren aldeko ideien hedapena eta indar metaketa lantzen dute. Turismoaren, etxebizitzaren, lurralde-ereduaren eta kultur identitatearen arteko loturak landu ditu ikuspegi kritiko eta sozialetik. Turismoa. Desazkundera bidaiak (ARGIA, 2026) liburua egilea da.



Samara Velle Moran (Zarautz, 1991). Ikertzailea eta irakaslea NOR ikerketa taldea, EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitatea Saileko irakaslea. Gizartea, Politika eta Kulturaren doktorea da eta Diskurtso Ikasketen, analisi narratiboaren eta Kultur Ikasketen artean kokatzen dira bere ikerketak. Akademian jardun aurretik, 2010etik 2018ra Berria egunkarian aritu zen kazetari gisara, nagusiki nazioarteko politikako gaiak eta generokoak landuz. 'Nik sinesten dizut: bortxaketaren kultura eta sanferminetako kasua' (Elkar-Txalaparta, 2019) eta 'Diskurtsoaren Anlisisa Gizarte Zientzietan: oinarritzko kontzeptu eta tresnak' (UEU-EHU, 2025) liburuen egilea. Ikertzailea da *Gazte-ahotsak: gazte-kultura, euskara eta hizkuntza-ideologiak* egitasmoan..



Iñaki Sagardoi Leuza Giza eta Gizarte Zientzietan doktorea da eta I-COMMUNITAS Ikerketa Institutuko kide. Irakasle laguntzaile doktorea da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko sailean. Ikertzailea da *Gazte-ahotsak: gazte-kultura, euskara eta hizkuntza-ideologiak* egitasmoan.



Lamia Filali-Mouncef Lazkano Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua (EHU, 2017) eta soziologiako eta kultur produkzioen analisiko masterduna (UOC, 2021). Hizkuntzen irakaskuntzan, euskararen biziberritzean eta hizkuntza aniztasunaren alorretan ibili da lanean, azken hori Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedran. Egun doktorego aurreko ikertzailea da Euskal Herriko Unibertsitatean Gizartea, Politika eta Kultura programan eta *Gazte-ahotsak: gazte-kultura, euskara eta hizkuntza-ideologiak* egitasmoan.



Oroitz Jauregi Nazabal (Legorreta, 1974). Euskal Filologian eta Aleman Filologian lizentziatua (Euskal Herriko Unibertsitatetik) eta Euskal Filologian doktorea da (Euskal Herriko Unibertsitatetik). 2004tik irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean, egun Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. 2007an euskararen silabaren inguruko tesia egin zuen M.L. Oñederra irakaslearekin. Euskararen fonologia izan da, oro har, bere azter eremu nagusia. Ikertzailea da *Gazte-ahotsak: gazte-kultura, euskara eta hizkuntza-ideologiak* egitasmoan..



Beñat Gaztelumendi Arandia izan da Añorgako Dibertimentuaren sustatzaile eta bultzatzaile nagusietako bat. Bertsolari, kazetari eta kultur eragile gisa, Dibertimenduan auzoko sormen-ondarea berritzeko eta komunitatea kulturaren bidez trinkotzeko aukera ikusi du. Dibertimentua ez da soilik jai-ekitaldi bat. Beñatek dionez; auzoko memoria, umorea eta parte-hartzea artikulatzen dituen kultura-praktika bizia da, Añorgako komunitatearen nortasuna indartzeko tresna ere badena.



Gari Oñamendi Arrieta Añorgako Dibertimentuaren sustatzaile eta bultzatzaile nagusietako bat da. Dantzari eta musikari gisa duen ibilbidea baliatu ditu ekimenaren alderdi koreografikoa eta artistikoa garatzen laguntzeko, tradizioa eta sorkuntza garaikidea uztartuz. Dibertimentua komunitatea aktibatzeko tresna gisa azaltzen du, belaunaldien arteko transmisioa sustatzeko eta kultura herritarra berritzeko bide. Baina, Garik azpimarratzen duenez, hori bezain garrantzitsua da Dibertimednuak auzotarrak inplikatu dituela eta hainbat belaunaldi elkarrekin lanean jarri dituela.